

Konexio uneak

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Bizitzea munduan gutxien egi-
ten den gauza dela erran zuen
Oscar Wildek, jende gehiena
existitu egiten delako sinpleki.
Hala ere, zeinek ez du bizia bor-bor sen-
titu edertasuna behatzean, lehenbiziko
aldia balitz bezala, edo bertze pertsona
batekin intimoki konektatzean, sorme-
na berez ateratzean, zerbait ulertzean,
aske eta konfiantzan adieraztean... Mo-
nica Cavallek “El Coraje de Ser” liburuan
dioenez, une horietan, bilatu gabe, gure
buruarekin osoki bat egiten dugu eta
bertzeekin eta errealitatearekin elkar-
tuak sentitzen gara. Momentu horietan,
existitzeaz haragoko bizia nolakoa izan
daitekeen sumatzen ahal dugu.

Halako uneak espero ez ditugunean
bizitzen ahal ditugu, baina horretarako
tarte hartu behar dugu. Adibidez, goi-
zean jaikitzean gustuko testu bat iraku-
rriz, zeruan gertatzen diren mugimen-
duei begiratuz, mendi buelta bat
emanez edo meditatuz. Norbaitekin so-
lasean ere gerta daiteke. Demagun, ile-
apaindegian, ongizaterako hagitz ga-
rrantzitsua den leku horretan.
Ile lisoa duenak kizkurra izan nahi lu-
ke, ondulatua duenak lisoa eta horia
duenak beltza. Fina duenak lodia, anitz
duenak gutxiago, gutxi duenak gehiago
eta lodia duenak fina. Baina, azkene-
koan ile-apaintzaileak azaldu zidanez,
bakoitzak beretzat hoberena den ilea

dugu. Onura ateratzen jakitea da kon-
tua. Adibide bat eman zidan: zuk lore
bati begiratzen diozunean ez zara has-
ten argiegia den, ilunegia den, txikiegia
den edo lodiegia den pentsatzen, ederra
da bere horretan, den bezala, eta kito.
Gure buruarekin eta bertze pertsonekin
berdina eginen bagenu, zein ezberdin
ikusiko ginatekeen, ezta?
Ez gaude konforme gure gorputzare-
kin, beti topatzen dugu zerbait hobetze-
ko, baina gure gorputza ibilbide bat da
eta ematen digun guztia eskertu behar
genioke. Egunerokoan, inportantea de-
na ahanzten dugu batzuetan. Horrega-
tik joaten naiz gustura ile-apaindegira;
berriz oroitzeko. •

Polizia gorria / polizia urdina

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Hedabideetan egunero bon-
bardatzen gaituzte “Eus-
kal Poliziaren” aurpegi
atseginenarekin... herrita-
rra animatuz martxan diren polizia
plazatan izena ematera, polizia lanbi-
de arrunta bailitzan eta eredia jatorra
ta *guaia*.
Horretarako, iruditeria bihurritzen
dute jaka gorrikoak eta urdinekoak bat
eginik aurkeztuz, lehenek duten ospe
sozial eskasa bigarren goen hobeare-
kin parekatzeko xede iruzurtiz. Aspal-
diko urtetan dabilta asmo berean.
Ez dut udaltzaingoak miresteko as-
morik, baina hiriburuetan izan ezik
hurbilekoagoa da, abegikorrak eta,

bereziki herri txikietan, su-armarik
gabeko polizia bakarra. Jaka gorrikoe-
kiko zer esan, polizia-tresna peto-pe-
toa dela, “*al uso*”, herritar bakoitza
etsaitzat duena, eta ez dela apurrik ere
bereizten espainiar poliziarengandik.
Bada, berrarmatzea dela-eta Europa-
ko estatuen agenda politikoaren lehen
lerrotik inoiz ez bezalako atrebentzia-
rekin herritarroi iseka egiten diguten
eta lelotzat hartzen gaituzten sasoi ho-
netan, haize freskoa eta argi-izpi garbia
iritsi zaigu Gasteiztik: Gasteiz Anitza.
Herritarren eskubideen urraketak
larriagotzen eta ugaritzen ari dire-
nean, segurtasun sakrosantuaren ize-
nean arazoei polizia gero eta oldarko-

rargoarekin erantzuten dien eredia
dugunean, eta jendartea gero eta indi-
bidualistagoa denean, Gasteiztik dator
ahots berri eta ozena: dioenez, Santia-
go Etorbideko kasua konponbidean ja-
rri dute eta, beraz, herritarrek eta el-
kar teek komunitatean lan eginda,
asko hitz eginez eta gehiago entzunez,
gizarte anitzaren konplexutasunekin
ere aurre egitea posible da, elkarbizi-
tza posible da. Zabal dadila herriz he-
rri. Zeharka eraginen du-eta, gainera,
polizia eredu honen urritzea eta alda-
tzea. Izan ere, Noam Chomskyk zioen
bezala: «Batzuetan polizia ez da kon-
ponbidea, arazoaren sintoma baizik».
Bejondeiela! •